





# A&B LABORATORIOS DE BIOTECNOLOGÍA, S.A.U.:

## EKOSOLBATZAILEAK: berrikuntza eta ekodiseinua garbiketa industrialean



Jon Kepa Izaguirre  
kepa@ab-laboratorios.com  
945291616  
<https://ab-laboratorios.com>

- 
-  **Jarduera:** A&B Laboratorios de Biotecnología Arabako ETE familiar bat da, sektore kimikokoa, eta erreferente bat da sektorean. 20 herrialdetan du presentzia. Garbiketa eta mantentze industrialerako produktu ekologikoak fabrikatu eta banatzen ditu: garbigarri desinfektagarriak, koipegabetzaileak, etab.
  -  **Sektorea:** Biotecnología - kimico
  -  **Enplegatutako pertsonen kopurua:** 36
  -  **Lokalizazioa:** Pol. Ind. Júndiz, C/Paduleta esq. c/Jundiz s/n, 01015 , Vitoria - Gasteiz, Araba

**NAZIOARTE mailako berrikuntza ERRADIKALA****Zergaitik izango litzateke berrikuntza kasu praktiko bat?**

A&B Laboratorios de Biotecnología enpresak ekodisolbatzaileen sorta bat garatu du disolbatzaile tradizional kutsagarrien alternatiba gisa, eta horri esker langileei eta ingurumenari begira erabilera-arriskuak murriztu dira. Horrela, enpresak arrakastaz eraman du merkatura garbiketa industrialerako soluzio berritzaile bat. Ekodisolbatzaileak produktu berriak eta erabilerrazak dira; ingurumen-irizpide guztiak betetzen dituzte, azalera mota guztietarako balio dute (erreferentziak bateratzen dira eta stocka murrizten da) eta hondakinen kudeaketa sinplifikatzen dute.

**KASU PRAKTIKOARI BURUZKO INFORMAZIO ZEHATZA**

A&B Laboratorios de Biotecnología enpresak garbiketa eta mantentze industrialerako ingurumen-eragin txikiko produktu kimiko eta biologikoen fabrikazioa eta banaketa lantzen du, A&B markarekin. Garapen jasagarriaren aldeko estrategia du, zeinak energia-baliabide eta lehengai arriskutsuen kontsumoaren murrizketa aurreikusten duen. Kudeaketa-sistemak Euskaliten Kudeaketa Aurreratuaren Eredua aplikatzen du, eta kalitate-sistemen, ingurumenaren, berrikuntzaren eta ekodiseinuaren ziurtagiriak ditu.

Filosofia horrekin, 2018an enpresa ekodisolbatzaileen ideia garatzen hasi zen, Ecolabel irizpideen etiketa-ziurtagiriak sartzean (Europako Etiketa Ekologikoa). Urtebeteko lanaren ondoren, 2019. urtearen amaieran enpresa ekodisolbatzaileen sortako lehen erreferentzia saltzen hasi zen. Gaur egun, sortan hainbat produktu daude, eta merkaturan dauden disolbatzaile tradizionalen % 60ren funtzionalitateak estaltzen dituzte.

Ekodiseinuari esker, A&B ekodisolbatzaileek hondakin gutxi sortzen dituzte, eta arrisku txikiagoko substantziak erabiltzen dituzte; horrela, ahalik eta gehien murrizten dituzte eragina eta erabiltzaileentzako eta ingurumenarentzako arriskuak. Horrek biltegiatze-gastu eta garraio-murrizketa gutxiago dakar, baita laneko giro higienikoagoa eta hondakinen kudeaketa sinpleagoa ere. Erabiltzaileenganako eta ingurumenarentzako arriskuen murrizketa kanpoko erakundeek ziurtatu dute, dagokion etiketarekin.

Ekodisolbatzaileak garatzeko erabilitako baliabideei dagokienez, enpresako sei pertsona lanaldi erdian egon da I+G+b unitatean, UNE166002 berrikuntza-sistemarekin. Horiek prestakuntza espezifikoak jaso dute, eta parte hartu dute berrikuntza-ereduen esperientzia pilotuetan (BideBerri eta Kudeabide programak). Halaber, inbertsio ekonomikoak egin dira balioztatze-prozesuetarako, eta kanpoko eragileek produktuak erregistratu dituzte.

Oro har, lankidetzako praktika da, hura egiteko funtsezkoa izan baita bezeroen arteko lankidetzak (zehazki, Euskadiko bezeroak), behar bezala zehazteko produktuak eta haien prozesuetara egokitzeko. Gainera, Terknikerrekin aritu dira lankidetzan amaierako prototipoaren kanpoko balioztapenerako eta etiketa ziurtatzeko, lhoberekin batera (Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Kudeaketarako Sozietate Publikoa). Salmentei dagokienez, ekodisolbatzaileen nazioarteko arrakastak enpresaren aurreikuspenak gainditu ditu, eta nazioartekotzea ari da indartzen. Gaur egun 20 herrialdetan saltzen dute, Europako mugen barruan eta kanpoan. Gainera, bezeroen asebetetzeak eta produktu berrien garapenerako inplikazioak berrikuntza berriak planteatzeko ateak irekitzen ditu.

**Aurrekariak**

Sektore industrialean garbitzeko eta koipea kentzeko prozesuetan erabilitako disolbatzaileek lurrunketa handiko osagai arriskutsu eta sukoiak dituzte. EBn araututako prebentzioaren ondorioz, disolbatzaileen erabiltzaileek erabilera kontrolatzen dute, eta alternatiba berriak bilatzen dituzte. Bestalde, A&B Laboratorios de Biotecnología enpresa bere produktuek erabiltzailearengan eta ingurumenean izango zuten eraginaren gaineko kezka argiarekin sortu zen. Horregatik proposatu zen disolbatzaile tradizionalen alternatiba bat garatzea, bezeroen segurtasun-politikekin eta GJHeekin lerrotuta.

**Erronka**

A&B markarentzako erronka izan da disolbatzaile tradizionalen ordezkioak topatzea, garbiketa- eta koipegabete-gaitasun handiarekin, tradizionalen antzekoak, baina ingurumenarentzako eragin txikiagoarekin eta erabiltzaileentzako seguruagoak, arriskuak murriztuz. Horretarako, enpresak abian jarri du teknologia garbien, kimika berdearen eta bioteknologiaren erabileran oinarritutako soluzio bat, ISO14006 bizi-zikloaren ikuspegiarekin eta ekodiseinuarekin batera, bezeroen lankidetzarekin.

**Ekintzak**

1. A&B Laboratorios de Biotecnología enpresaren apustu estrategikoa hazkuntza jasagarriaren, ingurumenaren eta berrikuntzaren alde.
2. Garbiketan eta koipegabetez inplikaturako prozesuen azterketa, soluzio berriak planteatzeko xedearekin.
3. Produktuaren bizi-zikloaren ikuspegi globala garatzea, Ekodiseinuaren testuinguruan (ISO 14006 arauaren arabera), eta Ecolabel irizpideen jarraipena (Europako Etiketa Ekologikoa), helburuak markatzeko.
4. Ikuspuntu teknikitik: a) tentsoaktiboak hautatzea eragin txikiko ur-oinarrirako, detergentzia onarekin eta hondakin gutxirekin, kimika berdearen bidez; b) formulazioak ordezkatzeko biokatalizatzaile entzimatikoekin, zikintasuna sakabanatzeko eta hura ezabatzeko, bioteknologiari esker.

5. Produktuaren amaierako balioztapena, Euskadiko sei bezero kolaboratzaileekin batera, UNE 166002 araua jarraituz I+G+b-ren kudeaketan.
6. BRTAko (Basque Research and Technology Alliance) eragileekin kontrastatzea, eta bereziki Teknikerrekin, amaierako prototipoa balioztatu eta ziurtatzeko kasuetan, Ecolabelekin. Amaierako balioztapen-prozesua lhoberekin (Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Kudeaketarako sozietate publikoa).
7. A&B ekodisolbatzaileak salgai jartzea nazioko eta nazioarteko merkatuan 2019an, produktuen tipologia berri hori garatu eta balioztatu ondoren Euskadiko kolaboratzaileekin.

## Lortutako emaitzak

- 2019, 2020 eta 2021 urteetan lortutako emaitzak oso ontzat jotzen dira, eta hasierako helburuak lortu ziren salmenten zifrei, bezeroak erakartzeari eta merkatu berrien garapenari dagokienez, bereziki nazioarteko mailan, non produktuek salmenten % 10 okupatzen duten.
- Bezeroen asebetetze-inkestetan, % 91k produktuen balio-ekarpena baieztatzen dute. Halaber, barneko langileen asebetetze-datua, ingurumen-hobekuntzarekin eta jsangarritasunarekin lotuta, 8,7koa da 10etik.
- A&B ekodisolbatzaileek lehiakortasuna handitu dute. Bezeroak asebeteta daude, eta errazagoa da horiek fidelizatzea.
- Ekodisolbatzaileen nazioarteko arrakastak enpresaren nazioartekotzea indartzen du, eta atzerrian merkatuak irekitzen laguntzen du.
- Enpresa benetako berrikuntza lortu du, arrakasta komertzialarekin, eta enpresari errentagarritasuna ari da ematen.
- Enpresak hainbat sari jaso ditu A&B ekodisolbatzaileei esker: 2020an Euskaliten QIA sarietako (Quality Innovation Award) finalistak izan ziren ingurumenaren kategorian, eta Europako Ingurumen Saria jaso dute Euskadi mailako garapen jasangarrirako produktuaren kategorian.
- Nazioarteko erreferentziak ekodiseinua erabiltzea (ISO14006) eta produktuaren bizi-zikloa hobetzea beste erakunde batzuetan errepika daiteke argi eta garbi.

---

## KASUAREN KATEGORIZAZIOA

---

### Berrikuntza-eremuak:

- Produktua: Ondasun fisikoak.

### Aukera arloak:

- 1 - Trantsizio energetiko/klimatikoa

Jon Kepa Izaguirre (Kalitate eta I+G+b zuzendaria)

«Ekodisolbatzaileen berrikuntzako arrakasta izan da gure bezeroekin garbiketa eta koipegabetze industrialeko soluzioak diseinatzea, erabilera-segurtasuna, ingurumen-hobekuntza eta prozesuko eraginkortasuna batuz».

Jon Kepa Izaguirre (Kalitate eta I+G+b zuzendaria)

«BRTAko zentroekin lankidetzan aritzeak eta ISO14006 ziurtagiriak egiaztatutako ekodiseinuaren metodologia gehitzeak aukera eman digu ekodisolbatzaileen bizi-produktuan hobekuntza garrantzitsuak gehitu eta egiaztatzeko, eta hori funtsezkoa da nazioarteko merkatuan sartzeko».

### Innovation Index Score: ★★★★★☆

Lerrokatze estrategikoa: ★★★★★

Kreatibitatea: ★★☆☆★

Kolaborazioa eta hibridazioa: ★★☆☆★

Sistematizazioa: ★★★★★

Eraginkortasuna emaitzetan: ★★★★★

Efizientzia emaitzetan: ★★★★★

Erreplikagarritasuna eta transferigarritasuna: ★★★★★

★

Eragina: ★★★★★

Aintzatespena: ★★★★★